

Beatriz De La Fuente De
Mingo

Anexo 2. Guía didáctica, versión en euskera

GIDA DIDAKTIKOA: NORTZUK GARA?

HASIERAKO ARGIBIDEAK

Paper zorroa

Ikasleek atal desberdinetako jardueretan zehar egiten joaten diren ekoizkinak (testuak, irudiak, ...) paper zorroan biltzen joango dira.

Eguneroko

Gida didaktiko hau landuko den saio bakoitzean, etxean saioan egindakoa lerro batzuetan eta era librean idazteko arduradun bat edo bi izendatuko dira (zerrenda baten hurrenkera jarraituko da nahasketarik ez sortzeko). Idatzitakoa gida landuko den hurrengo egunaren hasieran irakurriko da.

Euskararen erabilera saritu

Ikasleek euskara erabiltzen ez dutenean zigor bat jarri ordez horren erabilera saritu behar da, hau da, ikasleak euskara erabiltzen dutenean ikaskide guztientzako sariak irabaziko dituzte. Horrela, ikasle bakoitza euskaraz adierazten saiatzen den bakoitzean puntu bat lortuko du. Puntuak gelan jarriko den taula batean idatziko dira pegatinak erabiliz. Guztien artean zortzi pegatina lortzen dutenean gelan jartzeko abesti bat aukeratu ahal izango dute. Hogei puntu lortzean guztien artean banatzeko erregalaz edo galleta pakete bat irabaziko dute. Berrogei puntu lortzen badute hurrengo sariren bat emango zaie: gelatik kanpoko jarduera bat egitea, filme bat ikustea,...

Taldeak

Gida didaktikoko jarduera batzuk garatzeko ezinbestekoa da ikasleak taldeka jartzea. Talde hauek, irakasleak egiten dituenak, Pere Pujolàs-en (2011) gomendioak jarraituz, lau pertsonaz osatuta egongo dira eta generoari, etniari, interesei, ahalmenei, motibazioari, errendimenduari dagokienez heterogeneoak izango dira. Gainera, taldeak osatzean garrantzitsua da ikasleen arteko harremanak kontuan hartzea. Harreman horiei buruzko informazioa test soziometriko baten bidez lortuko da.

Oro har, taldeko jarduerekin ikasleen arteko elkarrizketa sustatzeak dute helburu, elkarrizketa honek galdera batzuk komentatzen diren bitartean sortuko da. Taldeko jarduera horietan ikasleen betebeharrak nagusia hitz egitea eta taldekideei entzutea da, horrek errendimendu txikiagoa edo zailtasun gehiago duten umeen parte hartzea bultzatuko du.. Horren ondorioz, klasekideek ume horri buruz duten irudia aldatu ahal izango dute.

Gida garatzen den denboran zehar taldeak ez dira finkoak izango, aitzitik, klasekideen arteko elkar ezagutza sustatzea bilatzen denez taldeen osaketa aldatuko da, ikasle bakoitza bere beste klasekide

guztiekin harremanetan jartzen dela bermatuz. Horrela hiru hilabete bakoitzean bi aldiz talde berriak osatzea proposatzen da, ikasle bakoitza gida lantzen den denboran zehar sei talde desberdinetan egoteko aukera izan dezan, hau da, hogeita lau klasekideekin egoteko bidea eskainiko zaio.

Ikasleak ez dira taldeka jarriko bakarrik jarduera egiteko ezinbestekoa denean, gida lantzen den aste guztietan zehar baizik.

Egitura kooperatibo bakunak

Pere Pujolàsek (2011), besteak beste, egitura kooperatibo batzuk aurkezten dizkigu. Horien artean, hauek dira gidan zehar, gehienetan taldeka galderak komentatzeko, erabiliko direnak:

1-2-4: Ikasleek galdera bat erantzun behar dute, baina ez edonola. Hau da, lehenengo eta behin, ikasleek galdera banaka erantzungo dute. Gero, ikasleak bikoteka jarriko dira idatzi dituzten erantzunak trukatzeko. Amaitzeko bikote biak elkartuko dira erantzunak lotzeko.

Zenbaki berdinak elkarrekin: gidan zehar egitura hau erabiliko da ikasleek taldeka lan egiten bukatzean talde bakoitzeko bozeramaile bat aukeratzeko. Bozeramaile honek beste ikasle guztiei bere taldean komentatu dena azalduko die. Hautaketa hau egiteko, irakasleak ikasle bakoitzari batetik lau arteko zenbakia idatzita daukan zintzilikari bat jarriko dio Orduan, irakasleak horietako zenbaki bat aukeratu du eta zenbaki hori zintzilikarian idatzita daukaten ikasleak bozeramaileak izango dira.

Taldeko bozeramaile bakoitzak ez du klaseari bere taldean landutakoa dena jarraian azalduko. Aitzitik, honek taldeko ideia bat esan ondoren hurrengo bozeramaileari utziko dio txanda, azken honek gauza bera egiteko, beste bozeramaileak esandako ideiak berriro ez esanez.

Aitzitik, lehenengo taldeko bozeramaileak bere taldeko ideia bat azaldu ondoren bigarren taldeko bozeramaileak beste ideia bat esango du, aurrekoa esan duena ez errepikatuz, horrela bozeramaile guztiak bere taldeko ideiak esan arte.

Orri birakaria: ikasleak taldeka jarrita egongo dira. Irakasleak talde bakoitzari orri bat baino ez dio emango talde kide guztien artean betetzeko. Horrela, taldeko ikasle batek zerbait idatziko du irakasleak jarri dien lana egiten hasteko, besteak bitartean ados dauden ala ez ziurtatuko dute. Ondoren, taldeko beste batek idazten jarraituko du. Gauza bera egingo dute lana bukatu arte. Ikasleei, bakoitzak idatzitakoa, behin paperean egonda taldekide guztien ardura dela azaltzea oso garrantzitsua da.

Arkatzak erdira: Taldekide batek lanaren lehenengo galdera edo enuntziatua irakurriko du. Horrek irakurtzen duen bitartean taldekideen arkatz guztiak mahaiaren erdian egongo dira, eta han egoten

jarraituko dute taldeak galdera edo enuntziatuaren erantzuna zein den erabaki arte. Arkatzak mahaiaren erdian daudenean hitz egin eta entzun baino ezin da egin. Zer erantzun ematea edo idaztea komentatu ondoren, bakoitzak bere arkatza hartuko du eta guztien artean erabaki duten erantzuna idatziko du.

Galderen katea: egitura hau gidaren amaieran baino ez da erabiliko. Ikasleak taldeka gidan zehar landu diren gaiei buruzko galderak prestatu beharko dituzte, gero, gelako talde desberdinei egiteko.

Horrela, talde batek beste bati galdera bat egingo dio eta azken honek minutu bat izango du taldekideen artean erantzun egokia adosteko eta esateko. Gero, galdera erantzun duen taldeak, beste talde bati galdera bat egingo dio. Gauza bera egingo da talde guztiak beste talde bati bi galderak egin eta gero. Kasu honetan talde bakoitzean bi bozeramaileak egotea garrantzitsua da. Batak beste talde bati galdera egiteko eta besteak beste taldetik galdetutako galderaren adostutako erantzuna adierazteko.

0. ATALA: GIDA DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA

Atal hau bost jardueraz osatuta dago.

0. jarduera: gida didaktikoa familiei aurkeztu

Irakasleak ikasleei gida didaktikoa aurkeztuko dien bezala familiari ere gida didaktiko honek zertan datzan azalduko die, horretarako gutun bat bidaliko die gidaren helburuak eta informazio nagusia azaltzeko.

Halaber, gida didaktikoaren ekintza batzuk garatzeko ikasleek familien laguntza behar izango dutenez, bai informazio iturri bezala bai beste era batzuetan; eta eskolan familien parte hartzea sustatzeko, kurtsuan zehar, gida didaktiko bakoitza hasi baino aste bat lehenago, tutoreak familiei informazio oharrak bidaliko dizkie gaia aurkezteko, eta bere seme-alabak nola lagundu ahal dituzten azaltzeko. Informazio ohar bakoitzaren azpian ebakigarri bat egongo da, hau da, ikasleen familiak informazio oharren azken zatia moztu, sinatu eta bere seme-alaben tutoreari helarazi behar izango dute, azken honek familiek informazioa jaso dutela baieztatzeko.

Familiek ebakigarri hori bete behar izango dute eta haien seme-alaben bidez irakasleari helarazi, tutoreak familiak informazioa jaso dutela baieztatzeko.

Jarraian tutoreak familiei kurtso hasieran bidaliko dien gutuna aurkeztuko da:

Familia agurgarriak:

Aurten euskara saio batzuetan proiektu berezi bat landuko dugula azaltzeko idazten dizuet. Proiektua *nortzuk gara?* deitzen da eta zuen seme-alaben euskararen ahozko eta idatzizko erabilera, hobetzea du helburu. Horrez gain, proiektu horren bidez gelaren kohesioa indartzea espero dugu.

Proiektua hamaika atalez osatuta dago. Atal bakoitzean gai desberdin bat landuko da:

1. atala: Informazio orokorra
2. atala: Nire familia
3. atala: Nire musika
4. atala: Nire asteburuak
5. atala: Nire janaria
6. atala: Ospakizunak
7. atala: Nire jaiotza
8. atala: Nola ikusten dut neure burua etorkizunean?

9. atala: Non bizi naiz?

10. atala: Nire zaletasunak

11. atala: Ebaluazioa


Atal bakoitza lantzen hasi baino aste bete lehenago informazio ohar bat bidaliko dizuet, atalaren gaia zein den azaltzeko eta zuen seme-alabei iraganeko pasadizo bat kontatzera edo argazki batzuk ateratzen laguntzera anima zaitezten.

Gainera, ohar honek daukan bezala, besteak ebakigarri bat ere edukiko dute, zuek betetzeko eta zuen seme-alaben bidez ni helarazteko, nik informazioa jaso duzuela baieztatu ahal izateko.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)




Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

1. jarduera: bideoa ikusi eta tutoreak ikasleei azalpenak eman

Irakasleak ezer azaldu baino lehen ikasleek gida didaktikoaren aurkezpen bideoa ikusiko dute.




1. irudia bideoaren 1. eszena




2. irudia bideoaren 2. eszena




3. irudia bideoaren 3. eszena




4. irudia bideoaren 4. eszena




5. irudia bideoaren 5. eszena



6. irudia bideoaren 6. eszena



7. irudia bideoaren 7. eszena



8. irudia bideoaren 8. eszena

Gero, irakasleak, ikasleak ulertu ez dutena kontuan hartuta *nortzuk gara?* proiekturen ezaugarriak azalduko ditu.

2. jarduera: diagnostiko proba egin

Ikasleak bere klasekideei buruzko hurrengo galdera sorta erantzungo dute:

Izena _____ Data _____

- 1- Nork aukeratu zuen _____(r)en izena?
- 2- Zergatik _____ deitzen da horrela?
- 3- Zer ordutan jaio nintzen?
- 4- Zenbat pisatu zuen _____k jaiotzean?
- 5- Non bizi da _____?
- 6- Norekin bizi da _____?
- 7- Zein da _____(r)en abeslari gustukoena?
- 8- Eta _____(r)ena?
- 9- Zein da _____(r)en janari gogokoena?
- 10- Eta _____(r)ena?
- 11- _____ normalean erosketak egitera joaten da? Erantzuna baietz bada: Nola joaten da bakarrik edo norbaitekin?
- 12- Zer gustatzen zaio _____ (r)i egitea bere senide batekin?
- 13- Eta _____(r)i?
- 14- Zer egiten du _____(e)k asteburuetan?
- 15- Eta _____(e)k?
- 16- Zer gauza ospatzen dira _____(r)en familian?

17- Nola ospatzen dute ospakizunak _____(r)en familian?

18- _____(r)i zer gustatzen zaio egitea aisialdian?

19- Eta _____(r)i?

20- Nola imajinatzen du _____k bere bizitza etorkizunean?

Galderek ez dute informazio orokorra lantzen, pertsonaren xehetasunak eta informazio sakona baizik. Galdera batzuetan hutsuneak daude. Hutsune horietan tutoreak gelako ikasleen izenak idatziko ditu. Hogei galdera daude klasekide bakoitzak berari buruzko galdera bat edukitzeko.

Ikasleek galderak beren ikaskideei buruz dakitenaz baliatuz bete ondoren galderen erantzunak komunean jarriko dira. Erantzunak komunean jartzeko galdera bakoitzean klasekide guztiak idatzitako erantzunak irakurriko dituzte. Ondoren, galderan aipatzen den ikasleak galderaren erantzun zuzena zein den argituko du. Galdera hauek lantzeak ikasle bakoitzari bere kideei buruzko ezagutza zein den erakutsiko dio, horrela, gauza batzuk haien kideei buruz ez dakitela konturatuko dira *nortzuk gara?* gida didaktikoaren erabilera ulertuz. Horrez gain, irakaslearentzat galdera horien erantzunak ezagutzea oso baliagarria izango da, bere ikasleen arteko harremani buruzko informazioa emango diolako.

3. jarduera: agintzaria egin

Hirugarren jarduera honek ikasleek idazki bat egitea dauka helburu. Idazki horretan gida didaktikoan zehar ikasleek beteko dituzten jokabideak jaso behar dituzte. Irakaslea ikasleek agintzarian jasoko dituzten jokabideen artean ikasleek behintzat hurrengo hauek idazten saiatuko da: klasekideek kontatzen dutena inori ez esatea, jardueretan parte hartzea eta besteekiko errespetua erakustea.

Agintzaria sortzeko ikasleak taldeka jarriko dira eta **1-2-4** egitura kooperatiboa erabiliko dute hurrengo bi auzi hauei buruzko gogoeta egiteko:

- *Nire bizitzari buruzko zerbait kontatzen dudanean zer gauza ez litzaidake gustatuko klasekideek egitea?*

- *Nire bizitzari buruzko zerbait kontatzen dudanean zer gauza gustatuko litzaidake klasekideek egitea?*

Denbora bukatzen denean talde bakoitzeko bozeramaileak besteei taldeko ideiak aurkeztuko dizkie. Bitartean irakaslea ideia horiek ordenagailua erabiliz jasotzen joango da, ikasle guztiak ordenagailuko proiektagailuan ikusi ahal izateko. Klasean proiektagailurik ez badago irakasleak

ideiak arbelean jasoko ditu.

Talde bakoitzeko bozeramaileak aukeratzeko **zenbaki berdinak elkarrekin** egitura kooperatiboa erabiliko da.

Taldeko ideia guztiak behin jasota eta elkartuta, talde bakoitzari bost minutu emango zaio esaldi batzuk pentsatzeko. Esaldi horietan ikasle guztiak gelan gustura egoteko jokabideak deskribatuko dira. Esaldi guztiak ikasleek sinatuko duten orri batean idatziko dira. Agintzaria eginda egon ondoren, zer egingo den norbaitek betetzen ez badu pentsatuko da.

Agintzaria hau bezalakoa izan daiteke:

_____ko (urtea) _____ren (hilabetea) _____ean(eguna), guk, _____
ikastetxeko _____mailako ikasleek hurrengoa baiesten dugu:

Gure ikaskideak bere bizitzari buruz kontaktzen dutena bere baimenik gabe inori ez kontaktzea.

Jarduera desberdinetan parte hartzea.

Gure ikaskideekiko errespetua izatea.

Sinadurak

4. Jarduera: paper zorroa pertsonalizatu

Oso garrantzitsua da ikasleak paper zorroa pertsonalizatzea, bakoitzak zerbait marraztuz edo idatziz. Adibidez, ikasle guztiak marrazki txiki bat egin dezakete paper zorroan itsasteko. Horrez gain, egokia izango zen azalean taldeko argazki pare bat itsastea eta gida didaktikoaren izena (*nortzuk gara?*) idaztea.

1. ATALA: INFORMAZIO OROKORRA

Atal honetan ikasle guztien artean elkarrizketa bat sortuko dute non ikasleen alderdi pertsonalak landuko diren. Elkarrizketa behin eginda, ikasleak bikoteka, edo hirukoteka, bakoitiak badira, jarriko dira elkarrizketa batak besteari egiteko.

Elkarrizketa sortzeko ikasleek taldeka **orri birakaria** egitura kooperatiboa erabiliz pertsona bati buruzko ahalik eta informazio gehien ateratzeko hamar galdera pentsatu beharko dituzte. Talde guztiak galderak prest izandakoan, talde bakoitzeko bozeramaileak aukeratuko dira. Horretarako, irakasleak zenbaki berdinak elkarrekin egitura kooperatiboa erabiliko du. Bozeramaileak behin aukeratuta galderak amankomunean jarriko dira.

Irakasleak bitartean galderak idatziko ditu arbelean edo ordenagailuan, gelan proiektagailuan egonez gero. Eta horrela, talde guztien galderak elkartzuz elkarrizketa osatuko da.

Elkarrizketa behin bukatuta ikasleak etxera eramango dute. Etxean ikasleek elkarrizketa irakurri behar dute eta galdera guztiak erantzuteko gai direla ziurtatu behar dute. Galderaren bat erantzuten ez badakite bere familiako kideren bati galdetuko diote.

Ikasleek elkarrizketako erantzun guztiak erantzuteko gauza izan ondoren ikasleak bikoteka jarriko dira batak besteari elkarrizketa egiteko. Ikasleak bere ikaskideari galdetu eta gero jasotzen duen informazioa elkarrizketako paperean era laburrean idatziko du. Izan ere, gero, ikasle bakoitzak testu bat osatuko du besteari informazioa bilduz eta antolatuz.

Testuak behin bukatuta egonda, ikasleek testuak trukatu dituzte, bakoitzak berari buruzko testua irakurriz. Horrela ea testuan agertzen den guztia zuzena den eta protagonista ados dagoen ziurtatuko da.

Ikasle bakoitzak bere kidea beste gelakideei aurkeztuko die, hala ere, ikasleek ezin izango dute testua irakurri. Hori dela eta, lagungarria izango den eskematxo bat egingo dute eta informazioa buruz ikasiko dute. Dena den, honek ez du esan nahi informazioa testuan idatzita dagoen moduan azaltzea eskatuko zaionik. Aitzitik, ikasleak egindako testua ulertu behar izango du eta bere hitzak erabiliz azaldu beharko du. Gainera, informazioa egunerokoa izateak ikasketa erraztuko du.

Erakusketa bakoitzak gehienez bost minutu iraungo du, saio batean guztiak egin ahal izateko. Erakusketak CD batean grabatuko dira eta CDa paper zorroaren barruan gordeko da. Horrez gain, ikasleek osatutako testuak gordeko dira.

Halaber, ikasleek haiek osatutako testuari buruzko hiru baieztapen sortu behar dituzte, bakoitzak bere aurkezpena egin ondoren botatzeko. Ikasleak baieztapen hauek entzutean bikoteka jarrita, hiru minututan zehar, baieztapenak benetakoak edo gezurrak diren eztabaidatuko dute eta erabakia

irakasleak emango dien paper batean idatziko dute. Aurkezpen guztiak egin ondoren irakasleak erantzun paperak batuko ditu. Honek erantzun paperak zuzenduko ditu eta erantzun zuzen gehiago izan dituen bikotea zein den esango du. Irabazleek bi “*Chupa Chups*” jasoko dituzte, bat bikotekide bakoitzeko. Ariketa hau atal guztietan zehar egingo da ikasleak ahozko erakusketak egitean. Honi esker guztiak irabazi ahal izango dute. Ariketa honetako bikoteak kurtsoan zehar finkoak izango dira.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren lehenengo atala landuko dugu. Lehenengo atal honetan, sarrerako atala denez, gaia informazio orokorra da. Zuen seme-alabek gelan elkarrizketa bat osatuko dute. Ikasle bakoitzak elkarrizketa hori klasekide bati egingo dio eta norbaitek berari ere egingo dio. Hala ere, elkarrizketa gauzatu baino lehen etxera eramango dute bi egunean zehar haien erantzunak pentsatzeko. Elkarrizketa etxera eramaten dutenean, haiekin birpasatzera animatzen zaituztegu, zuen seme-alabek galdera guztiak erantzuteko informazio guztia daukatela ziurtatzeko, eta informazioaren bat ez badute zuek aurkitzen lagundu ahal izateko.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

2. ATALA: NIRE FAMILIA

Atal honetatik aurrera atalak bi jardueraz osatuta egongo dira:

Lehenengo jardueran ikasleek taldeka atalaren gaiari buruzko galdera batzuk erantzungo dituzte. Erantzunak atalaren arabera era batean edo bestean jasoko dituzte. Egokia izango litzateke aukera egongo balitz talde bakoitzean dinamizatzaile bat egotea.

Bigarren jarduerari dagokionez, jarduera hau ekintza berezi bat izango da. Azken produktua gaiari buruzko erakusketa bat antolatzea izango da.

1. jarduera: galdera sorta

Ikasleak taldeka jarrita familiari buruzko hurrengo sei galdera erantzungo dute:

1- Norekin bizi zara? Etxean zaudenean zer gauza egitea gustatzen zaizkizu? Nahiago duzu gauzak zuk bakarrik egitea edo zure senide batekin egitea?

2- Anai-arrebarik daukazu? Zu baino nagusiagoak dira edo zu baino txikiagoak? Logela partekatzen duzue? Beraiekin denbora pasatzea gustatzen zaizu? Nolakoa da daukazuen harremana? Anai-arrebarik ez badaukazu, edukitzea gustatuko litzazuke? Zergatik?

3- Zein seniderekin egoten zara gehiago? Elkarrekin zaudetenean zer egiten duzue?

4- Aitona-amonarik daukazu? Egoten zara beraiekin? Gustatzen zaizu beraiekin denbora ematea?

5- Zure izeko-osabak eta zure lehengusu-lehengusinak sarritan ikusten dituzu? Elkarrekin zaudetenean zer egiten duzue?

6- Beste galderetan zehar hitz egin dugun pertsonen gain ba al dago norbait gehiago zure familia osatzen duena? Noiz egoten zara berarekin?

Galderak erantzuteko **arkatzak erdira** egitura kooperatiboa erabiliko da. Erantzunak ikasle bakoitzak ondorengo taulan idatziko ditu:

	1. kidearen izena:	2.kidearen izena:	3. kidearen izena
1. galdera			
2. galdera			

3. galdera			
4. galdera			
5. galdera			
6. galdera			

1. Taula 2. ataleko galdera sortaren erantzunak jasotzeko materiala

Kideak esaten dutena arretaz entzun behar dela azpimarratuko da, galderak erantzuten bukatzean ikasle bakoitzak taldeko baten familiari buruzko eskematxo txiki bat egin behar izango duelako, eta horretaz gain hurrengo galdera hau erantzun behar izango du: Zertan ezberdintzen dira nire ikaskideak eta nire familia, eta zertan ez? Haatik, ikasleek galderak erantzuten bukatu arte ez dute jakingo bakoitzak zein taldekideren familiari buruz hitz egingo duen. Hori dela eta, taldekide guztiek esaten dutenari adi egon behar dute.

Taldekide bakoitzak batetik lau arte zenbakia idatzita daukan dolumina bat izango du. Orduan, ikasleek galderak erantzundakoan, irakasleak zera esango du: batak bigarren familiari buruz hitz egingo du, biak hirugarrenari buruz, hiruak laugarrenari buruz eta lauak batarenari buruz.

Familiari buruzko eskematxo bakoitzean ikasleak aipatu dituen senide guztiak agertu behar dira. Senideak irudi sinpleen bidez aurkeztuko dira.

Eskematxoei argazki bat aterako zaizkie, argazki hauek proiektagailuan jartzeko, ikasle guztiak ikusi ahal izateko. Eskematxo bakoitza proiektagailuan jarrita dagoen bitartean egileak horri

buruzko azalpen bat emango du. Azalpenean ikasleak eskeman agertzen diren senide guztiei buruz hitz egingo du. Azalpen hauek prestatuta egongo dira. Eskematxoa behin bukatuta, horren protagonistari erakustea garrantzitsua da, protagonistak eskema akatsik ez daukala ziurtatzeko. Horrez gain horren inguruko azalpena ere besteari kontatzea egokia izango da, azaltzen den guztia zuzena den edo ez baieztatzeko.

2. jarduera: ekintza berezia

Ikasle bakoitzak senide bat aukeratuko du. Ikasle bakoitzak zein senide aukeratu duen irakasleak baino ezin du jakin. Ikasleek aukeratu duten pertsonari buruzko deskribapena egingo dute. Deskribapen horiek gero banan-banan ordenagailuan grabatuko dituzte irakaslearen laguntzarekin. Hala ere, grabatzeko ez dute irakurriko, hori dela eta, ikasi ondoren irakasleari kontatuko diote, honek bitartean grabatuko du.

Halaber, ikasleek aukeratutako pertsonaren argazki bat bilatuko dute edo irudi bat egingo dute irakasleari emateko. Irakasleak kartoi mehe batean jarriko ditu guztiak, edo eskaneatu ondoren *power point* batean jarriko ditu. Dena prest dagoenean, grabaketak jarriko dira ikasleak entzuteko. Grabaketa bakoitza entzun eta gero, hitz egiten duena nor den asmatzeaz gain grabaketa irudi batekin lotu beharko dute. Hau egiteko bikoteka jarriko dira eta orri batean grabaketa bakoitza zein irudiarekin lotuta dagoen apuntatuko dute, gero nork asmatu duen ikusiko da. Horrela grabaketak entzuten diren bitartean ikasleen arreta mantentzea lortuko da. Irudiak letrekin izendatuta egongo dira: A, B, C,... eta grabaketak zenbakiekin. Hori dela eta, bikote bakoitzak erantzun orrian hau bezalako erantzunak eman behar izango ditu 1-B,...

Tutoreak grabaketa guztiak entzun eta gero erantzun orriak zuzenduko ditu eta erantzun zuzen gehien duen bikoteari bi chupa chups emango dizkio.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren bigarren atala landuko dugu. Bigarren atalaren gaia nire familia da. Bigarren atal honetan zuen seme-alabek familiako senide bat aukeratu behar izango dute gero deskribatzeko. Deskribapena klasean idatziko dute. Gainera, aukeratutako senidearen argazki bat klasera eramatea, edo argazkirik ez baduzue marrazki bat egitea eskatuko zaio, hori dela eta, gustatuko litzaidake zuek argazkia aurkitzen edo marrazkia egiten laguntzea.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

3. ATALA: NIRE MUSIKA

1. jarduera: galdera sorta

Ikasleek taldeka hurrengo lau galderak erantzungo dituzte:

1- *Sarritan edo noizean behin entzuten duzu musika?*

2- *Non entzuten duzu musika, ordenagailuan, irrastian edo musika gailu batean?*

3- *Zein abeslari gustatzen zaizu?*

4- *Zure senideek gogoko duten abeslariren bat ezagutzen duzu? Zuri gustatzen zaizu?*

Galderak taldeka erantzun ondoren, talde bakoitzeko taldekide guztietatik batek klaseari taldean komentatu dena azalduko dio. Horretarako, talde guztiei denbora apur bat emango zaie taldekide guztien artean eskematxo txiki bat, taldean hitz egin dutenari buruzko ideei nagusiez osatuta, egiteko. Hau oso baliagarria izango da taldeko bozeramaileentzat. Irakasleak talde bakoitzeko bozeramailea nor den taldeak eskemak egiten amaitu arte ez du esango, hori dela medio, oso garrantzitsua da taldekide guztiak bai galderaren erantzutean bai eskema egitean parte hartzea. Bozeramaileak aukeratzeko irakasleak **zenbaki berdinak elkarrekin** egitura kooperatiboa erabiliko du.

2. jarduera: ekintza berezia

Ekintza hau egiteko ikasleek bere senideei haien abeslari gogokoenei buruz galdetu behar izango diete. Horrez gain, ikasle bakoitzak bere abeslari gustukoena zein den pentsatu behar izango du. Abeslariak behin aukeratuta, bat ikaslearen senidearen bati gustatzen zaiona eta bestea ikasleari gustatzen zaiona, irakaslea ikasleekin ordenagailu gelara joango da, han bakoitzak aukeratutako abeslariari buruzko informazioa bilatuko du. Bi ikasleek abeslari bera aukeratu badute, ikasle horiei erakusketa elkarrekin egiteko aukera emango zaie. Ordenagailu gelan informazioa bildu ondoren, ikasleek bi abeslariari buruzko testua idatziko dute. Gainera, abeslari bakoitzaren abesti bat aukeratu dute eta hurrengo galdera erantzungo dute: *Aukeratutako abeslariak zertan dute antza eta zertan ez?*

Irakasleak ikasleei prozesu guztian zehar gidatzeko galdera batzuk emango dizkie, ikasleek abeslariari buruzko erakusketa egitean erantzun beharko dituzte aipatutako galderak.

Testua bukatu eta gero, erakusketa prestatzen hasiko dira. Erakusketa honetan zein bi abeslari aukeratu dituzten azalduko dute eta horiei buruz hitz egingo dute. Erakusketan ezin izango dute testua irakurri horregatik eskematxo bat prestatu beharko dute eta kontatuko duten informazioa ikasi. Ikasleek informazioa ikasi ahal izateko ezinbestekoa da horiek ulertzea, hau da, ikasleek ordenagailutik atera zuten informazioa testuan bere hitzez moldatuta egotea.

Kasu honetan, ikasleek eskematxoa ez dute eskuan eramango, power-point-eko diapositiba batean idatziko dute. Horrela, ikasleak ez du datu gehiegi ikasi behar izango. Ikasle bakoitzak egiten dituen diapositibak irakasleak lotuko ditu *power point* bakar bat sortuz. Aurkezpen horiek gelan jarriko dira eta diapositibak *power point*-ean agertzen diren hurrenkera jarraituz ateratzen joango dira ikasleak erakusketa egiteko. Diapositibaren hurrenkera zozketa baten bidez erabakiko da.

Gainera, ikasle bakoitzak, beste atalean egin den bezala, aukeratutako abeslariari buruzko bi edo hiru baieztapen asmatuko ditu. Ikasle bakoitzak baieztapen hauek erakusketa egin eta gero esango ditu eta besteek, bikoteka jarrita, zuzenak ala gezurrak diren erantzun orrian apuntatuko dute. Erantzun zuzen gehiago daukan bikoteak bi chupa chups lortuko ditu.

Ikasle guztiak bere erakusketa egindakoan prestatutako testuak, diapositibak eta erakusketak, irakasleak grabatu dituenak, paper zorroko CD batean gordeko dira. Erakusketak grabatzen ez badira, ikasleak aurkezpena egiten ari direnean argazkiak atera ahal dira.

Halaber, ikasleak aukeratutako abeslariaren abestiekin disko bat osatuko da. Honek ikasleak txandaka etxera eramango dute eta noizean behin klasean entzungo da. Denboraren poderioz abesti berriak diskoan gehitu ahal izango dira, ikasle guztiak abestiak proposatuz parte hartzen badute. Diskoko abesti guztiak ez dira guztien gustukoak izan beharko, alabaina abesti guztiak ezagutu eta errespetatu behar dituzte bere kideen hautaketak direlako.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren hirugarren atala landuko dugu. Hirugarren atalaren gaia nire musika da. Atal honetan zuen seme-alabek bi abeslari aukeratu beharko dituzte. Bata senideren bati gustatzen zaiona eta bestea berak gustuko duena. Gainera, abeslari bakoitzeko abesti bat aukeratu behar du. Hori dela eta, zuen seme-alabei zuen familiari edo senideren bati gustatzen zaion abeslari bat aukeratzen eta abeslari horren abesti bat hautatzen ere laguntzera animatzen zaituztet.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen
arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

4. ATALA: ASTEBURUAK**1. jarduera: galdera sorta**

Ikasleak taldeka hurrengo galderak erantzungo dituzte **arkatzak erdira** egitura kooperatiba erabiliz. Ikasleek taldean komentatzen dena galderaren azpian agertzen den bezalako taula batean jasoko dute.

- Normalean asteburuetan goiz altxatzen zarete ala berandu? Etxean bizi zareten guztiak ordu berean altxatzen zarete?

- Elkarrekin gosaltzen duzue edo bakoitzak altxatzen denean edo gose denean gosaltzen du?

-Zer gustatzen zaizue gosaltzeko?

-Oro har, asteburuetan zer ordutan bazkaltzen duzue?

-Bazkaldu eta gero, lokuluxka botatzen duzue, filme bat ikusten duzue, edo ez bata ezta bestea?

-Zer gauza egiten dituzue asteburuetan?

Taldearen zenbakia::	Lo egin	Gosaldu	Lokuluxka	Jan
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				

Ikaslearen izena:				

2. Taula 4. ataleko galdera sortaren erantzunak jasotzeko materiala

Hori egin eta gero, irakasleak taula bat margotuta edukiko duen zatar paper zati bat jarriko du arbelaren gainean. Taulak lehenengo lerroko laukietan hurrengo hitzak idatzita izango ditu: lo egin, gosaldu, lokuluxka eta jan; eta lehenengo zutabeko laukietan ikasleen izenak idatzita egongo dira.

Taula horrela beteko da:

Ikasleek lo egin idatzita dagoen zutabea **goiztiarraren** pegatina, azalean oilar bat agertzen dena, edo **lotiaren** pegatina, koala bat daukana, jartzen eta altxatzen diren ordua idazten beteko dute.

Gosariaren zutabea **goxoaren** edo **gaziaren** pegatina itsatsiko dute. Horrez gain, ikasleak gosaltzen duen janariaren bat idatziko du aukeratutako pegatinaren azpian.

Lokuluxkaren zutabea **bai** ala **ez** idatzi behar dute. Gainera, bai idazten dutenek **luzea** edo **motza** ere idatzi behar dute.

Jan hitza idatzita dagoen zutabea **elkarrekin** edo **bakoitzak nahi duenean** idatzi behar izango dute.

Hala ere, ikasle bakoitzak ez du bere lerroa beteko, taldekide bateko lerroa baizik. Horretarako galdera sortaren erantzunak jaso dituen taulaz baliatuko da. Ikasle bakoitzari noren lerroa bete behar izango duen esateko hurrengo egingo da: batetik lau arte zenbakiak idatzita daukaten dominak banatuko dira. Eta orduan irakaslea hurrengo esango du: bi zenbakia daukatenean lau zenbakia daukatenean lerroa beteko dute eta aldrebes; eta bat zenbakia daukatenean hiru zenbakia daukanaren lerroa beteko dute eta aldrebes.

Orduan, ikasle bakoitzak hamar minutu izango du taulan zer pegatinak jarriko dituen eta zer informazio idatziko duen pentsatzeko. Horrez gain, azalpen txiki bat emango dute eta hori ere pentsatu behar izango dute. Guztiak taula nola beteko duten jakitean, ikasleak banan-banan aterako

dira arbelera taula betetzeko eta idatzi dutenaren zergatia azaltzeko.

2. jarduera: ekintza berezia

Ekintza hau klasean egin baino bi aste lehenago, irakasleak ikasleei asteburu batean zehar asteburuan zehar egin dutena adieraziko duten argazkiak atera behar dituztela esango die. Adibidez, atera dezakete argazki bat ikaslearen familia bazkaltzeko prest dagoenean, edo sofán eserita, edo kalean izan daiteke. Irakasleak jarduera hasi baino bi aste lehenago eskatuko die ikasleei argazkiak ateratzeko, horrela denbora nahikoa izan dezaten erretratuak egiteko.

Argazki hauek mugikorrarekin edo argazki kamerarekin atera ahalko dituzte. Ikasle batek ez badauka ez bata ez bestea, tutoreak ikaslearen gurasoei eskolako argazki kamera utziko die asteburu batean zehar ikasleak argazkiak egin ditzan.

Ikasle guztiek argazkiak atera ondoren, hauek gelan testu bat idatziko dute asteburuan zehar egin dutena azalduz. Testua bukatzen dutenean denbora utziko zaie aurkezpena prestatzeko, hau da, eskematxo bat egiteko, eta esango duen informazioa ikasteko.

Ikasleak ateratako argazkiak ordenagailuan jarriko dira, proiektagailua badago, proiektagailuan. Horrela, ikasle guztiak banan-banan proiektagailuaren alboan jartzen joango dira argazkiak lagunduta prestatutako erakusketa egiteko eta argazkietan agertzen dena aurkezteko. Aurreko atalean egin den bezala, ikasle bakoitzak erakusketaren bukaeran hitz egin duenari buruzko hiru baieztapen esango die bere klasekideei. Azken hauek bikoteka jarrita baieztapenak benetakoak edo gezurrezkoak diren paper batean idatziko dute. Horregatik ikasleak baieztapenak asmatu nahi badituzte erakusketan zehar adi egon beharko dute. Erantzun zuzen gehiago asmatzen dituen bikoteak sari txiki bat jasoko du, hala nola: bi chupa chups.

Horrez gain, paper zorroaren barruan “gure filmak eta gure liburuak” izenburua daukan koadernotxo bat egongo da. Koaderno horretan ikasleek asteburuan zehar ikusten dituzten filmen kritikak eta gomendioak ez ezik, irakurtzen dituzten liburuenak ere idatziko dituzte. Gainera ikasleek koadernoan idazten duten liburu edo filmak sailkatuko dituzte izar kopuru bat, batetik bost arte, emanaz. Hori egiteko koadernoaren atzeko aldean izar pegatinak egongo dira. Koadernoan idazten dena bi asterik behin irakurriko da.

Ikasleak ez dira idaztera behartuta egongo, beraz ez da idazteko hurrenkera bat egongo. Irakaslearen ardura izango da ikasle guztiak idaztera animatzea, eta batez ere, parte eskasa duten ikasleak bultzatzea.

Gainera, koadernoaren etxera eraman ahal izango da bertan idazteko, edo bestela, ikasleak idatzi nahi duena orri batean idatzita ekarri ahal izango du, gelan orria koadernoan itsasteko.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Bi aste barru gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren laugarren atala landuko dugu. Atal honetan asteburuei buruz hitz egingo dugu. Oraingo honetan, zuen seme alabak asteburu batean zehar argazkiak atera behar izango dituzte. Zuen seme-alabek argazkiak ateratzen laguntzera animatzen zaituztet. Argazkiak mugikorrarekin edo argazki kamerarekin atera ditzakezue. Etxean ez badaukazue horrelako tresnarik, lasai, asteburu horretako eskolako argazki kamera utziko dizuet. Argazki horietan zuen seme-alabek asteburuan zehar egin duten agertu behar da. Ez da zerbait bitxia izan behar, aitzitik, normalean asteburuetan egiten dituzuen gauzak baizik.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

5. ATALA: NIRE JANARIA

1. jarduera: galdera sorta

Ikasleek taldeka **arkatzak erdira** egitura kooperatiboa erabiliz hurrengo galderak komentatuko dituzte.

-Zein da zure janaririk gustukoena?

-Erosketa egitera joaten zara edo hori egiten laguntzen duzu? Baietz erantzun baduzu: Bakarrik joaten zara edo norbaitekin?

-Badakizu janaria egiten? Zer? Gustatzen zaizu?

-Janaria prestatzen laguntzen duzu?

Taldearen erantzunak hurrengo taulan jasoko dira:

Taldearen zenbakia::	1. galdera	2. galdera	3. galdera	4. galdera
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				

Ikaslearen izena:				
-------------------	--	--	--	--

3. Taula 5. ataleko galdera sortaren erantzunak jasotzeko materiala

Gero, ikasleak bikoteka jarriko dira eta ikasle bakoitzak bere bikotekidearen izendapena idatziko du. Ikasleak bikotekidea **jatuna**, **sukaldari** edo **erosle** gisa izendatuko du. Ikaslearen ezaugarriak direla medio baten batek bi izendapen jaso ahalko ditu. Hala nola, jatuna eta erosle. Izendapenean bere zergatia azaldu beharko da. Horrez gain, bikotekidearen janaririk gogokoena zein den eta galdera sorta gauzatzean jaso duen informazioa idatzi beharko du.

Izendapena hau bezalakoa izan daiteke:

Nik _____ (*ikaslearen izena eta abizena*)
 _____ (*bikotekidearen izena eta abizena*)
 _____ (*zer?*). *izendatzen dut hurrengo*
arrazoiengatik: _____

Izendapenak amaitu ondoren irakasleak, ikasleek aurkezpenean izendapenak irakurri behar ez izateko, hauei denbora emango die gelakide guztien aurrean esango dutena prestatzeko. Guztiak prestatuta egon eta gero, ikasleak banan-banan izendapena adierazteko eta azaltzeko arbelera ateratzen joango dira.

Irakasleak klasera material hauek eramango ditu: sukaldari txano bat, egurrezko koilara bat, mantal bat, mahai-oihal bat, aho-zapi bat, erosketa egiteko poltsa bat eta diruzorro txiki bat. Horrela, izendapen bakoitza esan ondoren izendapena jaso duen ikasleak argazki bat aterako du. Jatun

izendapena jaso dutenek argazkian lepoan aho-zapi bat izango dute eta mahai oihal daukan mahai batean eserita agertuko dira; sukaldari izendapena jaso dutenek sukaldariko txanoa eta mantala jantziko dute eta esku batekin egur koilara hartuko du. Bestalde, erosle izendapena jasotzen dutenak erosketa egiteko poltsarekin eta diru zorro txikiarekin agertuko dira argazkian.

2. jarduera: ekintza berezia

Ekintza hau egiteko ikasle bakoitzak etxean jaten duen janari bat aukeratu beharko du, zehazki, gehien gustatzen zaiona. Janaria behin aukeratuta, etxekoei nola egiten den galdetuko die, gero errezeta idazteko. Ikasle bakoitzak errezeta idatzi eta gero bere klasekideei ahoz kontatuko die.

Halaber, ikasleei etxean janari hori prestatzen den egunean argazki bat ateratzeko edo marrazki bat egiteko esango zaie. Horrez gain, ikasleek errezeta eginda ekartzeko aukera izango dute, horrela besteak dastatu ahal izateko.

Errezeta bat idaztea eskatuko zaienez, hori egin baino lehen gelan mazedonia sukaldatuko da gero ikasleek horren errezeta osatzeko, errezetak idazten ikasteko eta beste errezeta egiteko eredu bat izateko. Ikasleak mazedoniaren errezeta egiten hasi baino lehen irakasleak jarduera aurrera eramateko irizpide batzuk emango dizkie eta egiten lagunduko die. Mazedonia egitea proposatzen da gelako ikasleren bat alergiko bada, honek arazorik ez izateko eta besteak bezala jan ahal izateko. Horrez gain, erabiliko diren frutaren batek alergia eragiten badio, fruta hori ez da erabiliko. Bestalde, mazedonia oso egokia da prestatzeko ez surik ez irabiagailurik ez delako behar.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren bosgarren atala landuko dugu. Atal honetan landuko den gaia nire janaria izango da. Gai hau lantzeko zuen seme-alabek etxean jaten duten janari bat aukeratu eta nola egiten den ikasi behar izango dute. Gero klasean ikasle bakoitzak aukeratutako janariaren errezeta idatziko du. Horrez gain, gelara janariaren argazki edo marrazki bat ekartzea; eta aukera badago janari horren anoa txiki bat taper batean ekartzea, bere klasekideak dastatzeko, eskatuko zaie.

Janaria ez da konplexua edo bitxia izan behar. Aitzitik, sarritan etxean jaten duten zerbait, prestatzeko ahalik eta errazena dena. Zuen seme-alabak janaria aukeratutakoan zuek nola egiten den irakastera animatzen zaituztet.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen
arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

6. ATALA: OSPAKIZUNAK**1. jarduera: galdera sorta**

Irakasleak gai hau lantzeko horma-irudi bat prestatuko du gelako bazter batean zakar papera erabiliz. Horma-irudi honek hurrengo galderak erantzun ondoren betetzen hasiko da.

- Zurekin bizi diren senideez gain zein seniderekin biltzen zara? Noizean behin?

- Zure familia sarritan biltzen da edo bakarrik ospakizun garrantzitsuak daudenean?

- Zure familia biltzen denean ondo pasatzen duzu? Zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxiena?

-Normalean non biltzen zarete?

Aurreko galderak **arkatzak erdira** egitura kooperatiboa erabiliz erantzungo dira eta bakoitzak bete behar izango duen taula hau izango da:

Taldearen zenbakia:	1. galdera	2. galdera	3. galdera	4. galdera
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				

Ikaslearen izena:				

4. Taula 6. ataleko galdera sortaren erantzunak jasotzeko materiala

Galderak taldeka komentatu eta gero, talde bakoitza bi bikotetan banatuko da. Horrela, bikote bakoitzaren barruan, ikasle batek horma-irudian beste kideari dagokio lekua beteko du, galdera sortatik ateratako informazioa baliatuz.

Zakar papera horrela bete behar izango da:

Zakar paperaren goiko atalean irakasleak aurpegi irribarretsu bat itsatsiko du eta zakar paperaren azpian aurpegi serio bat.

Aurpegi irribarretsuaren azpian ikasle bakoitzak bere bikotekideari familiar bileratik gehien gustatzen zaiona idatziko du. Eta aurpegi serioaren azpian gutxien gustatzen zaiona. Horrez gain, zatar paperean hau bezalako paperezko puxika batzuk itsatsita egongo dira.

Ikasle bakoitzak puxika bat izango du. Zatar paperean puxikak jarriko dira hauek ospakizunekin lotuta baitaude. Puxika bakoitzaren goiko zatian bigarren atalean egindako familiaren eskemak itsatsita egongo dira. Eskema horretan ikasle bakoitzarekin bizi diren pertsonak irudikatuta agertzen dira. Eskema horren alboetan ikasle bakoitzak bere bikotekidearekin egoten diren gainontzeko senideak marraztu behar izango ditu.

Halaber, puxika bakoitzaren beheko zatia egutegi bat irudikatuta egongo da. Egutegiaren azpian ikasle bakoitzak bere bikotekidearen familia noizean behin biltzen den idatziko du. Zatar paper osoa, erdiko zatia izan ezik, beteta geldituko da. Erdiko zati hori hurrengo jardueran osatuko da.

Ikasle bakoitzak zakar paperean zerbait idazten amaitzen duenean horren bikotekideak, hau da, informazio horren protagonistak, idatzitakoa birpasaetzea egokia izango litzateke akatsak saihesteko.

Lehenengo jardueraren amaieran ikasleek banan-banan bere bikotekideen puxika zerez beteta dagoen azalduko dute. Hori egin ondoren, bai aurpegi irribarretsuaren azpian bai aurpegi serioaren azpian idatzi den informazioa labur komentatuko da.

2. jarduera: ekintza berezia

Ekintza gauzatu baino aste bat lehenago irakasleak ikasleei bere familiekin ospatzen dituzten hiru une edo data bereziak (urtebetetzeak, gabonak,...) aukeratu behar dituztela eta horien inguruko hurrengo informazioa bildu behar dutela azalduko die.

-Zer ospatzen da? Zergatik? Noiztik?

-Zer pertsonen parte hartzen dute ospakizunean?

-Non?

-Nola ospatzen da? Zer egiten da?

Gainera, une horiek irudikatzen dituzten argazkiak edo marrazkiak gelara eramateko eskatuko zaie. Ikasle guztiak informazioa bilduta daukatenean, ikasleak gelan hiru testu osatzeko denbora izango dute. Testu bakoitzean une bakoitzaren informazioa antolatuta idatziko da.

Testuak bukatu eta zuzendu ondoren, ikasleak testuak ozen kontatzeko eskematxo bat prestatuko dute eta testuaren informazioa ikasiko dute. Gero, ikasleek eskematxo bakoitza puxika batean sartuko dute. Orduan, ikasleek puxikak puztuko dituzte eta gelako alde batetik bestera, edo ahal den moduan, jarrita egongo den artileko hari batean lotuko dituzte. Hurrengo saioan puxikak banan-banan zulatuko dira barruan dagoen eskematxoa ateraz. Eskematxoaren egileak, eskematxoaz lagunduta, aukeratutako unea azalduko du. Amaitzean, beste ikasleak zalantzarik badute galdetuko dute, bestela beste puxika bat zulatuko da berriro gauza bera egiteko.

Ikasle batek unearen azalpena eman eta gero, horri buruzko testua zatar paperean itsatsiko du, bere puxikaren barruan. Ikasleak zatar papera betetzen bukatzean gelan egongo da bi astean zehar. Gero tolestuko da eta paper zorroan sartuko da.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren seigarren atala landuko dugu. Atal honetan ospakizunei buruz hitz egingo da. Zehazki, zuen seme-alabek zuen familian ospatzen duzuen hiru une edo data berezi aukeratu behar izango dituzte. Hori dela eta, zuen seme-alabei uneak aukeratzen eta horiei buruzko hurrengo informazioa bilatzen laguntzera animatzen zaituztet:

-Zer ospatzen da? Zergatik? Noiztik?

-Zer pertsonen parte hartzen dute ospakizunean?

-Non?

-Nola ospatzen da? Zer egiten da?

Gainera, zuen seme-alabek ospakizun horiek irudikatzen dituzten argazkiak gelara ekartzea izugarri polita izango litzateke. Gelan zatar paper batean atal honetan landutako beste gauzez gain ikasle guztiak aukeratutako uneak bilduko dira. Zatar papera bukatutakoan lau eta erdietan gelara etortzera gonbidatzen zaituztet, horrela zatar papera ikusteko aukera izango duzue.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

7. ATALA: NIRE JAIOTZA

1. jarduera: galdera sorta

Oraingo honetan ikasleek bikoteka jarrita (atal honetako bigarren jardueran ikasleek prestatuko dituzten) elkarrizketaren galderak erantzuteko hipotesiak sortuko dituzte **arkatzak erdira** egitura kooperatiboa erabiliz. Hori dela medio, atal honetan lehenengo jarduera hau bigarren jardueraren erdian garatuko da.

2. jarduera: ekintza berezia

Atal honetan ikasleek txikitako argazkiekin bideo bat egingo dute *movie maker* programa erabiliz. Gainera, bideoan argazkiak ikusten diren bitartean ikasleak grabatutako kontaketa bat entzungo da, kontaketa horretan ikasle bakoitzak bere jaiotza nola izan zen eta txikitako pasadizoren bat kontatuko du.

Hori guztia egin ahal izateko, ikasleei txikitako argazkiak gelara eramatea eskatuko zaie eta **1, 2, 4, zenbaki berdinak elkarrekin** egitura kooperatiboak erabiliz eta hurrengo galdera erantzunez: *Nire jaiotzari buruz eta nik urte bat edo bi neukanei buruzko zer gauza jakitea gustatuko litzaidake?* ikasle guztien artean beren familiengan informazio lortzeko elkarrizketa, ikasle bakoitzak bere senideei egingo duena, prestatuko dute. Elkarrizketa behin bukatuta etxera eraman aurretik lehenengo jarduera gauzatuko da.

Etxean elkarrizketa egiteko egun batzuk izango dituzte, ondoren galderen erantzunak eskolara jarriko dituzte Elkarrizketak euskaraz, gazteleraz edota familian erabiltzen den beste hizkuntza batean egin ahalko dira. Hizkuntza ez da oztopo bat izango ekintza bukatutakoan elkarrizketan paper zoroan gordetzeko. Argazkiei dagokienez, hauek lortzeko aukera ez badago, horien ordez gelara marrazkiak eraman ahal izango dira

Elkarrizketan hurrengo galderak agertu ahal izango dira:

-Non jaio nintzen (ospitalean, etxean,...?)

-Nola sentitu ziren nire gurasoak ni ikustean?

-Zenbat pisatu nuen?

-Zein ordutan jaio nintzen?

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren zazpigarren atala landuko dugu. Atal honetan ikasleen jaiotzari buruz hitz egingo da. Horretarako, zuen seme-alabek klasean bere

jaiotzari eta bere bizitzaren lehenengo urteei buruzko elkarrizketa prestatu dute. Horrela, zuen seme-alabak elkarrizketa betetzen eta txikitako argazkiak bilatzen laguntzera animatzen zaituztet. Argazkiak gela eramateko aukera ez badago gaiari buruzko marrazkiak egiten lagundu ahal diezue.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

8. ATALA: NOLA IMAGINATZEN DUT NEURE BURUA ETORKIZUNEAN?

1.jarduera: galdera sorta

Ikasleak taldeka hurrengo galderak erantzungo dituzte:

-Zure bizitzan pertsonaren bat miresten duzu? Zergatik miresten duzu? Zer da pertsona horrengan gustoko duzuna?

-Nagusitan noren antza izatea gustatuko litzaizuke?

-Urte batzuk barru herri berean bizitzea gustatuko litzaizuke edo beste leku batera bizitzera joatea gustatuko litzaizuke? Nora joango zinateke?

-Hamar edo hamabost urte barru zure herria eta mundua asko aldatuko duela uste duzu? Nola imajinatzen duzu?

Galderak erantzun ondoren, talde bakoitzeko kide batek gelari taldean esan dena azalduko dio. Horretarako, ikasleei denbora apur bat emango zaie taldeka landutako ideiekin eskematxo bat osatzeko. Ezinbestekoa da galdera sortaren erantzutean eta eskemaren sorreran taldekide guztiak parte hartzea irakasleak ikasleak aurkezpenak egiten hasi baino segundo bat lehenago taldekideren artean aurkezpena nork egingo duen ez baitu esango. Talde bakoitzaren bozeramaileak aukeratzeko **zenbaki berdinak elkarrekin** egitura kooperatiboa erabiliko da.

2.jarduera: ekintza berezia

Ekintza hau garatzeko St Andrews unibertsitateak sortutako “zertarakoa” erabiliko da, hau hurrengo web orrian dago: <http://www.perceptionlab.com/morph/Transformer> eta ikasleen aurpegiak zahartzeko erabiliko da. Irakasleak ikasleen aurpegiak behin zahartuta, bakoitzari bere aurpegi zaharkitua emango dio. Saiatuko da ikasle bakoitzak berea baino ez dezala ikusi. Gero, ikasleek irudiaz baliatuta bere bizitza hamar edo hamabost urte barru nola izango den imajinatu beharko dute. Hau testu batean zehetasunekin idatziko dute. Testua idazteko, lehenengo eta behin ideiak solte idaztea eskatuko zaie. Geroago, ideia hauek antolatuko dituzte eta garatuko dituzte, hau da, testu egin baino lehen eskematxo bat egitea eskatuko zaie. Testua bukatutakoan ikasleek idatzitakoa beste kideei kontatuko diete, aurretik prestatzeko denbora emango zaie.

Ikasle guztiak aurkezpenak prest dituztenean, banan-banan aterako dira aurkezpena egitera. Ikasle bakoitzak bere aurkezpena egiten duen bitartean bere aurpegia zaharkitua ikusi ahal izango da gelaren proiektagailuan.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren zortzigarren atala landuko dugu. Atal honetan ikasleek aztertuko dute beren burua etorkizunean nola imajinatzen duten. Gai hori lantzeko zure seme-alaben aurpegiak agertzen diren argazkiak moldatuko ditugu. Ikasleek zaharkitutako aurpegiak agertzen diren argazkiak etxera eramango dituzte eta bere bizitza hamabost urte barru nola izango den pentsatzea eskatuko zaie. Zuen seme-alabekin batera gogoeta egitera animatzen zaituztet.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

9. ATALA: NON BIZI NAIZ?

1. jarduera: galdera sorta

Ikasleak hurrengo galderak erantzungo dituzte **1,2,4** egitura kooperatiboa erabiliz:

-Zenbat urte daramatzazu orain bizi zaren etxean bizitzen? Inoiz aldatu zara etxeaz? Zergatik?

-Bizi zaren kalea, auzoa eta herria gustatzen zaizkizu? Edo beste leku batean bizitzea gustatuko litzazuke? Zergatik?

-Egizu zerrenda bat gustatzen eta gustatzen ez zaizkizun herriko gauzak aipatuz.

-Alkatea izango bazina zer gauza egingo zenuke herria edo auzoa hobetzeko?

Ondoren, taldeei erakusketa prestatzeko denbora utziko zaie, horretarako eskematxo bat egitea eskatuko zaie. Oraingo honetan, taldekide bakoitza galdera baten bozeramailea izango da. Irakasleak taldekide bakoitzak zer galderari buruz hitz egingo duen erabakitzeko **zenbaki berdinak elkarrekin** egitura kooperatiboa erabiliko du. Hala ere, ikasle bakoitzak zer galdera azaldu behar izango duen ez du jakingo erakusketa egin baino segundo bat lehenago.

Hirugarren eta laugarren galderei dagokienez, talde guztiek ideiak aurkezten dituzten bitartean irakaslea erantzunak dokumentu batean biltzen joango da, ahal bada ordenagailua eta proiektagailua erabiliz. Dokumentu hori herriko udaletxera bidaliko da. Bilboko udaletxeak adibidez bere web orrian herriko iradokizunak bidaltzeko aukera ematen du eta beste udaletxeak helbide elektronikoko baten bidez ematen dute aukera hau.

2. jarduera: ekintza berezia

Ekintza hau garatzeko irakasleak herriko kale-izendegi bat eskuratu behar izango du. Mapa honetan bai eskola dagoen kalea bai ikasleen etxeak dauden kaleak agertu behar dira. Kale izendegi hau klasean jarriko da. Horrez gain, eskolaren argazki bat aterako du. Argazkia tamaina txikian inprimatuko du eta kale izendegian bertan edo honen inguruan kokatuko du.

Orduan, irakasleak ikasleei haiek bere etxearekin gauza bera egin behar dutela azalduko die, hau da, bere etxearen etxaurreari argazki bat atera behar diote eta gelara eramane. Han inprimatuko dira eta ikasleek mapan jarriko dute.

Horretaz aparte, herrian zehar oinez sarritan egiten duten ibilbide bat aukeratu beharko dute, hala nola, etxetik supermerkatu, etxetik eskolara, beren etxetik aitona-amonen etxera,... Bakoitzak ibilbide bat aukeratutakoan testu bat idatziko dute, ibilbidea nondik nora joaten den, noiz egiten duen, zergatik, norekin, eta ibilbidean zehar ezagutzen duen zerekin (parkeak, dendak, tabernak...) egiten duen topo azalduz. Horrez gain, ibilbidean zehar topatzen dituen gauzei argazkiak atera

beharko zaizkie.

Testua bukatutakoan ikasle bakoitzak erakusketa prestatzeko eskematxo bat egingo du eta testuan agertzen den informazioa ikasiko du. Guztiak prest egon ondoren erakusketak hasiko dira. Horrela ikasleak banan-banan kale izendegiren alboan jarriko dira eta horretaz baliatuz bere ibilbide azalduko dute. Ibilbidea egitean bidetik aurkitzen den gauzeekin azaltzean mapan bere klasekideei gauzen kokapena erakutsiko die. Horrez gain, bitartean gelako proiektagailuan ikasleak ateratako argazkiak ikusiko dira. Ikasle bakoitzak erakusketa bukatu ondoren, beste atalean egin den moduan, ikaslekideei bere ibilbideari buruzko hiru baieztapen esango dizkie, besteek bikoteka jarrita baieztapenak egia ala gezurra diren paper batean jasoko dute. Erakusketa guztiak bukatu eta gero, erantzun zuzen gehiago dauzkan bikoteak bi chupa chus lortuko ditu.

Erakusketen ondorioz, ikasle guztiek bizi diren lekua gehiago eta bere klasekideak nondik ibiltzen diren ezagutuko dute.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren bederatzigarren atala landuko dugu. Atal horren gaia non bizi naiz? da. Oraingo honetan, zuen seme-alabak zuen etxeko etxaurreari argazki bat atera beharko dio. Argazki horiek eskolan inprimatuko dira eta kale izendegi baten gainean jarriko dira. Gainera, zuen seme-alabek herrian zehar sarritan oinez egiten duten ibilbide bat aukeratu behar izango dute, esate baterako: etxetik supermerkatuara, etxetik eskolara, etxetik aitona-amonen etxera... Ibilbidea aukeratutakoan hurrengo galderak erantzun behar izango dituzte:

-Noiz egiten duzue?

-Zergatik?

-Norekin?

-Ibilbidean zehar zer gauzeekin (parkeak, dendak, tabernak...) topatzen zara?

Zuen seme-alabek etxearen etxaurreari argazkia ateratzen laguntzera eta ibilbideari buruzko galderak birpatsatzera animatzen zaituztet. Ikasleek ez dituzte galderak gelara idatzita eraman behar, gelan denbora emango baitzaie hori egiteko. Horrez gain, zuen seme-alabei gomendatuko diet ibilbidean normalean topatzen dituzten gauzei, plazei edo dena delakoei argazkiak ateratzea.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen
arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

10. ATALA: NIRE ZALETASUNAK

1. jarduera: galdera sorta

Ikasleak hurrengo galderak erantzun behar izango dituzte **arkatzak erdira** egitura kooperatiboa erabiliz:

-Bakarrik egotea gustatzen zaizu? Edo nahiago duzu beste pertsona batzuekin egotea? Edo gauza biak?

-Aurten egitea gustatzen zaizuna pasa den urtekoaren berdina da? Edo aldatu da?

-Gauza berberak egiten dituzu udan zein neguan? Edo kurtsoan zehar zein oporretan?

-Zure senideei eta zure lagunei zuri gustatzen zaizkizun gauzak egitea gustatzen zaizkie? Zer gustatzen zaie egitea?

Ikasleek aurreko galderak erantzuten dituzten bitartean hurrengo taula beteko dute:

Taldearen zenbakia:	1. galdera	2. galdera	3. galdera	4. galdera
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				
Ikaslearen izena:				

Ikaslearen izena:				

5. Taula 10. ataleko galdera sortaren erantzunak jasotzeko materiala

Aurreko atalean bezala, ikasleak galderak komentatu ondoren, taldeei erakusketa prestatzeko denbora utziko zaie, horretarako eskematxo bat egitea eskatuko zaie. Oraingo honetan, taldekide bakoitzak galdera baten bozeramailea izango da. Irakasleak taldekide bakoitzak zer galderari buruz hitz egingo duen erabakitzeko **zenbaki berdinak elkarrekin** egitura kooperatiboa erabiliko du. Hala ere, ikasle bakoitzak zer galdera azaldu behar izango duen ez du jakingo erakusketa egin baino segundo bat lehenago arte.

2. jarduera: ekintza berezia

Ekintza honetan ikasleei bere aisialdian egitea gustatzen zaiena grabatu behar izango dute, hau da, bere zaletasunak. Bideo horietan ikasleak agertu ahal dira al ez, haiek nahiago dutena. Hala nola, ikasle bati Mario Bros jolasa “play”ean jolastea gustatzen bazaio bere burua jolasten edo telebistaren irudia bera jolasten duenean grabatu behar izango du; ikasleari futbolean jolastea gustatzen bazaio bere burua futbolera jolasten edo bere lagunak futbolera jolasten grabatuko ditu.

Bideo hauek grabatu ahal izango dira argazki kameraz edo mugikorraz baliatuz. Ikasleren etxean ez badago ez bata ez bestea, tutoreak ikasle horren arduradunei eskolako argazki kamera utziko die asteburu batean zehar.

Gero, gelan, bakoitzak testu bat idatzi behar izango du egitea gustatzen zaiona zer den, zergatik gustatzen zaion, norekin egiten duen eta noiz, azalduz. Ikasle bakoitzak testua eta erakusketarako eskematxoa bukatzean, ikasleek banan-banan aurkezpenak egingo dituzte. Ikasle bakoitzak bere aurkezpena amaitzean edo horren erdian, ikasleak nahi duen moduan, grabatutako bideoa jarriko du. Oraingo honetan ere, ikasle bakoitzak hiru baieztapen prestatuko ditu, erakusketa amaitzean bere klasekideei esateko.

Atal honetako ekintza klasean garatu ahal izateko ikasleak etxean edo kalean bideo bat grabatu

behar izango dute. Hori dela medio, irakasleak gelan ekintza egin baino aste batzuk lehenago, ikasleei bideo bat grabatu behar dutela eta horren ezaugarriak azalduko dizkie, hauek grabatzeko denbora soberan izateko.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren hamargarren atala landuko dugu. Atal horretan ikasleen zaletasunei buruz hitz egingo da. Gai hau lantzeko zuen seme-alabei aisialdian egitea gustatzen zaiena grabatzea, hau da, beren zaletasunak grabatzea eskatuko zaie. Bideo horietan ikasleak agertzea edo ez beraiek erabakiko dute.

Bideo hauek argazki kameraz edo mugikorraz baliatuz grabatuko dituzte. Etxean horrelako tresnarik ez baduzue, eskolako argazki kamera utziko zaizue asteburu batean zehar.

Halaber, zuen seme-alabek ondorengo galderen gainean gogoeta egin beharko dute:

-Zer egitea gustatzen zaizu?

-Zergatik?

-Norekin egiten duzu?

-Zer egunetan nahiago duzu egitea?

Zuen seme-alabekin bideoak grabatzera eta galderari buruz pentsatzera animatzen zaituztegu.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Arduradunaren sinadura

11. ATALA: LABURBILDUZ**1. jarduera: galdera sorta**

Azken atal honetan 0. atalean egindako diagnostiko proba berriro egingo da. Ikasleak proba egin ondoren gidaren hasieran lortutako emaitzak orain lortutakoekin konparatuko dira. Halaber, hori egin eta gero **galderen katea** egitura kooperatiboa egingo da. Horrela, gida didaktikoaren helburuak ea lortu diren aztertuko da.

Familiarentzako informazio oharra

Familia agurgarriak:

Hurrengo astean gelan *nortzuk gara?* euskara proiektuaren hamaikagarren atala landuko dugu. Atal hau, azkena denez, proiektua bukatzeko _____ (r)en (hilabetea) _____ (e)an (eguna) lau eta erdietan, zuen seme-alaben bila etortzean gelatik pasatzera gonbidatzen zaituztet. Gelan zerbait jateko jarriko da eta zuen seme-alabek proiektu honetan zehar egindako lana ikusteko aukera izango duzue. Bete ezazue beheko laukia, etorriko zareten ala ez esanez.

Gainera, hurrengo ikasturteari begira proiektua hobetzeko proposamenak bidaltzera animatzen zaituztet.

Aldez aurretik ezkerak emanez agurtzen zaituztet

Tutorea

(Sinadura)



Nik, _____, _____ ikaslearen

arduradunak, informazioa jaso dudala baieztatzen dut.

Halaber, gelan egingo den *nortzuk gara?* proiektuaren erakusketara joango naizela baieztatzen dut

Bete laukia

BAI

EZ

Arduradunaren sinadura

DENBORA

Atalak	Garatzeko behar diren saioak	Saio bakoitzaren plangintza
0. ATALA	3 saio (iraila)	-Bideoa ikusi eta tutoreak ikasleei azalpenak eman (15min) -Diagnostiko proba egin (15min) -Proba zuzendu (15min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Agintzaria egin -banaka (5min) -bikoteka (10min) -talde txikietan (10min) -talde handietan (15min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Ordenagailura pasatutako agintzaria irakurri, sinatu eta betetzen ez denean zer egin pentsatu (15min) -Paper zorroa pertsonalizatu (25min)
1. ATALA	5 saio (urriaren hasiera)	-Egunerokoa irakurri (5min) -Elkarrizketa prestatu -talde txikia orri birakari (25min) -talde handia (15-20min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Elkarrizketa bikoteka gauzatu (35-40min) -Banaka bildutako informazioa antolatu (5-10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Banaka testua bukatu(30min) -Egindako testua protagonistari erakutsi (15min)

		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Eskema egin (10min)</p> <p>-Erakusketa prestatu (20-25min)</p> <p>-Baieztapenak prestatu (10-15min)</p>	
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Erakusketak (40min)</p>	
2. ATALA	6 saio (urriaren amaiera)	<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Galdera sorta erantzun, arkatzak erdira (30min)</p> <p>-Kidearen familiaren eskema egin (10-15min)</p>	
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Kidearen familiari buruzko testua idatzi (10-15min)</p> <p>-Testua protagonistari erakutsi (15min)</p> <p>-Testuaren eskema egin (10min)</p>	
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Erakusketa prestatu eta testuaren informazioa ikasi (15min)</p> <p>-Erakusketak (30min)</p>	
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Erakusketa (15min)</p> <p>-Senidearen deskribapena idatzi (30min)</p>	
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Deskribapena zuzendu eta ikasi (15-20min)</p> <p>-Deskribapenak grabatu eta baieztapenak idatzi (15-30min)</p>	
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Grabaketak entzun (40min)</p>	
3. ATALA	6 saio	<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p>	

	(azaroa)	<p>-Galdera sorta talde txikian erantzun (20min)</p> <p>-Komentatutako eskema egin (5min)</p> <p>-Talde handitan komentatu (15min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Ordenagailu gelan informazioa bilatu (30-40min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Bildutako informazioa antolatu eta testua egin (35min)</p> <p>-Paperean diapositiba prestatu (10min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Testua zuzendu (10min)</p> <p>-Diapositiba bukatu eta <i>power pointa</i> egin (10min)</p> <p>-Eskema egin (10min)</p> <p>-Erakusketa ikasi (15min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Azken konponketak, baieztapenak prestatu (15min)</p> <p>-Erakusketak hasi (25min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Erakusketak (40min)</p>
4. ATALA	5 saio (abendua)	<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Galdera sorta erantzun, arkatzak erdira (25min)</p> <p>-erakusketa idatziz prestatu, pegatinak eta zergatia (15min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p> <p>-Erakusketak prestatu, testua birpasatu (5min)</p> <p>-Erakusketak (30min)</p>
		<p>-Egunerokoa irakurri (5min)</p>

		-Erakusketak bukatu (10min) -Asteburuko testua idatzi (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Testua bukatu eta zuzendu (20min) -Eskema egin (10min) -Ikasi (10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Erakusketa ikasten bukatu (5min) -Erakusketak (30min)
5. ATALA	5 saio (urtarrila)	-Egunerokoa irakurri (5min) -Galdera sorta erantzun, arkatzak erdira (10-15min) -Izendapena pentsatu, idatzi eta ikasi (20min) -Izendapenen erakusketak (15-20min)
		-Eguneroko irakurri (5min) -Mazedonia egin eta horren errezeta idazten hasi (40min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Mazedoniaren errezeta bukatu (15min) -Etxeko janariaren errezeta idatzi (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Errezeta zuzendu (5min) -Errezetaren eskema egin (10min) -errezeta ikasi (10-15min) -Errezeten erakusketak hasi (10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Erakusketak (40min)

6. ATALA	4 saio (otsaila)	-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Galdera sorta erantzun, arkatzak erdira (25min)
		-kidearen puxika bete (15min)
		-Kidearen puxika protagonistari erakutsi (10mins)
		-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Erakusketarako eskema egin eta ikasi (10min)
		-Kidearen puxikaren erakusketak (20min)
		-Ospakizunen alde onak eta alde txarrak erantzun (10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Banaka hiru une idatzi (30min)
		-Uneen eskema egin (5min)
		-Uneak puxiketara sartu eta puztu (5min)
		-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Puxikak, banan-banan, lehertu eta erantzun (40min)
7 ATALA	5 saio (martxoa)	-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Elkarrizketa prestatu, orri birakaria (40min)
		-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Elkarrizketa erantzun hipotesiak sortuz (30min)
		- <i>Movie maker</i> - hasi, paperean eskema egin (10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Benetako erantzunak erabiliz testua idatzi (30min)
		-Eskema egin (5min)
		-Ikasi (5min)
		-Egunerokoa irakurri (5min)
		-Ikasten bukatu (10min)

		-soinua grabatu eta bideoan sartu (15min) -Argazkiak jarri (10min) -Efektuak gehitu (5min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -azken konponketak egin eta filma gorde (15min) -Bideoa ikusi (25min)
8. ATALA	5 saio (apirila)	-Egunerokoa irakurri (5min) -Galdera sorta erantzun, arkatzak erdira (25min) -Taldeka komentatuta gelari azaldu, zenbaki berdinak elkarrekin. (15min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Ordenagailu gelan ikasleen aurpegiak zahartu (15min) -Testua hasi (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Testuak bukatu (20min) -Eskema egin (10min) -Testua ikasi (10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Testua ikasten bukatu (15min) -Erakusketak egiten hasi (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Erakusketak bukatu (40min)
9. ATALA	5 saio (maiatzaren hasiera)	-Egunerokoa irakurri (5min) -Galdera sorta talde txikian erantzun, arkatzak erdira (25min)

		-Talde handitan komentatu (15min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Talde handitan galdera sortaren erantzunak komunean jartzen bukatu (15min) -Ibilbidearen testua idazten hasi (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Ibilbidearen testua bukatu (20min) -Ibilbidearen testuaren eskema egin (10min) -Ikasi (10min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Erakusketa prestatzen bukatu (15min) -Erakusketak hasi (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -erakusketak bukatu (40min)
10. ATALA	5 saio (maiatzaren amaiera)	-Egunerokoa irakurri (5min) -Galdera sorta talde txikian erantzun, arkatzak erdira. (20-25min) -Talde handian komentatu (15-20min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Zaletasunei buruzko testua idatzi (40min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Zaletasunen testua zuzendu (15min) -Eskema egin (10min) -Ikasi (15min) -Erakusketak hasi (10min)

		-Egunerokoa irakurri (5min) -Erakusketak egiten jarraitu (40min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Erakusketak bukatu (40min)
11. ATALA	2 saio (ekaina)	-Egunerokoa irakurri (5min) -Diagnostiko proba egin (15min) -Galderen katea (25min)
		-Egunerokoa irakurri (5min) -Inkesta eta balorapena (40min)

6. Gida didaktikoa garatzeko denbora

Gida didaktikoako saioak 45 minutukoak dira. Hirurogei minutu osatzeko falta diren hamabost minutu ikasleak aurreko klasea bukatu eta gero berriro esertzeko, arreta jartzeko eta irakasleak azalpenaren bat emateko utzi dira. Atal bakoitzak (0.a eta 11.a izan ezik hauek motsagoak baitira) aste bateko euskara saioetan, gutxi gorabehera, garatzea espero da. Guztira, gida didaktikoa 56 saioan zehar garatuko da.

BIBLIOGRAFIA

- Pujolàs, P. (2011). Aprendizaje cooperativo y educación inclusiva: Una forma práctica para que puedan aprender juntos alumnos diferentes. *VI Jornadas de Cooperación Educativa con Iberoamérica sobre educación especial e inclusión educativa. Estrategias para el desarrollo de escuelas y aulas inclusivas*. Recuperado el 18/05/14 en http://portal.unesco.org/geography/es/ev.php-URL_ID=14421&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html
- University of St Andrews. (2014). Face of the future. Recuperado el 26/04/14 en <http://www.perceptionlab.com/morph/Transformer/>